# Haize-errota

## Nola sortzen du energia haizeak?

### Materialak

– Arkatz bat, muturrean borragoma duena
– Erregela bat
– Paper karratu bat
– Guraizeak
– Txintxeta bat



### Zer egin

1. Marraztu 5 cm-ko diametroko zirkulu bat paperaren erdian. Egin puntu bat zirkuluaren erdian.
2. Ebaki lerro zuzen bat paperaren erpin batetik zirkulura. Ez ebaki marraztutako zirkulutik aurrera. Egin gauza bera paperaren gainerako hiru erpinetatik.
3. Okertu puntak (bat bai bestea ez) zirkuluaren erdiraino, baina papera tolestu gabe. Eutsi tolestutako puntei txintxeta batez, eta sartu zirkuluaren erdian. Paperezko haize-errota bat izango duzu.
4. Sartu txintxeta arkatzaren borragoman.
5. Jarri paperezko haize-errota zure aurrean, eta egin putz. Zer gertatu da?



da. Paperezko haize-errotari indarra eman diozu putz eginez. Lan egiteko, haize-errotak, gurpil hidraulikoak bezala, engranaje-sistema bat birarazten duen ardatz batera konekta daitezke. Haize-errotak sorgailu elektrikoa ere elika dezake.